



BARREN

TOKIKOM



Zaintzaileak zaintzen

El Gautxo
CAFETERIA - PIZZERIA

ANDRES DORTA

Zazpi urte pasatu dira Andres Dortak Gautxo taberna itxi eta Donostiara joatea erabaki zuetik. Donostiako Gros auzoan zabaldu zuen Gautxo berria, eta han jardun du lanean azken urteotan. Orain, Elgoibarrera itzuliko da berriro, "etxera".



o Etxean berriro

o Gautxo taberna zabalduko duzu berriro, Errosario kalean.

Bai, datorren ostegunean inauguratuko dugu, pizza-potearekin. Elgoibarrera itzuliko naiz, nire herrira. Elgoibarren etxean sentitzen naiz. Jendeak ezagutzen nau, badaki nola lan egiten dudana, eta hemen oso ondo hartzen naute. Elgoibartarrak gogoratzen dira nitaz, eta ilusioz nago. Krisialdia gainditzen ari garela uste dut, eta itxaropentsu nago.

o Nolatan hartu duzu Donostiatik berriro Elgoibarrera itzultzeko erabakia?

Donostiako lokala ez zen nirea, eta lanaren zati handi bat errentan jotzen zitzaidan. Elgoibarko lokala erosteko aukera suertatu zait, eta ez dut zalantzarik izan. Non egongo naiz ba etxean baino hobeto?

o Zer eskainiko diguzu?

Betikoa: pizzak, croissantak, pastelak, enpanadilla argentinarrak, Argentinako croissant bereziak kremarekin eta berrikuntzen artean, haragia parrillan. Argentinan oso ohikoa da, eta hori eskaintzen hasiko naiz. Horrez gain, etxeko etxeko banaketa zerbitzua ere eskainiko dugu.

o Zure jateketa jarri aurretik, Belaustegin ibili zinen lanean.

Bai, bereziki gozogintzan aritu nintzen Belaustegin. Iosurekin gauza pila bat ikasi nituen, eta primeran hartu ninduten euren etxean. Jende ona benetan. Argentinan bizi nintzenean ere sukaldari lanetan aritzen nintzen bost izarreko hotel batean, gozogintza arduraduna nintzen. Corralitoarekin lanik gabe geratu nintzen, eta lagun batek

esan zidan ezagun bat zeukala Donostian, eta harekin jarriko zela harremanetan. Donostiar hori Belaustegiko Iosuren lagun mina zen. Iosuk eskaini zizkidan lana, jatekoa eta ostatua. Eta horrela hartu nuen Elgoibarrerako bidea, orain dela 17 urte. Nire aitak ezagutzen zuen Eibar. Ehiztaria da, eta bazekien Eibarren eskopetak egiten zituztela,

baina Elgoibarri buruz ez genekien ezer. Belaustegin egin nituen lau bat urte, eta gero zabaldu nuen Gautxo. Nire hasierako asmoa hiru urterako etortzea zen, eta orain ez daukat Argentinara itzultzeko asmorik. Lana edukita, hemen oso ondo bizi naiz.

"Berrikuntzen artean haragia parrillan eskainiko dugu, Argentinan oso ohikoa da. Horrez gain etxeko etxeko banaketa zerbitzua ere jarriko dugu martxan"

El Gautxo
CAFETERIA - PIZZERIA

Errosario kalea, 31 - Elgoibar
943 574 947 - 608 740 526

Inaugurazioa!

Maiatzak 25, 19:00etan, pizza potearekin.



MADDI MENDIBIL



“25, 28... barixakua ala astelehena... herritarrentzako jaixak ala... ala?”

Zer moduz, rubia? Ni edarki nabil. Klasera etortzia ere diferentia da uda giro gozo honekin; ez jatzu begittantzen? Madril alde honetan, egixa esanda, martxo alderako egun epelak hartzen gaittu goizian goizetik. Zer dan klaseko lehixuetatik kanpora bada ere eguzkixa bizi dala ikustia eh... ze pozt!

Negua atzera, oporrak gaiñian, aspaldiko lagunak laster al-buan... eta jaixetako izardi, zezen eta ardo usaiña aurretik. Itxura danez, ez naiz bakarra apuntieri begira hasi eta Errosarixo kalia ixaxa ittotzeraiño sartzeko gogua burura etorri jakona; herrixa aztoratuta ibilli dala uste dot, egun-aldaketak tarteko.

25, 28... barixakua ala astelehena... herritarrentzako jaixak ala... ala?

“Tradizio izatiari laga arte dauka izen hori tradizioak”. Entzun dot holakorik, 28ra pasatziaren alde, eta bide batez, San

Bartolome jaixak santurik gabekuak bihurtu. Kanpora, horrekin batera, San Anton eta San Juan ere; errekan behera baietz bialdu Altzolatik. Eta geratu gaittezen ezeri lotu gabeko jaixekin. Ez dakit ba nik; ez nau gehixegi konbentzitzen horrek ere. Baiña ikusten nago tradiziaren oposizioa 28xan alkarri ardaa bota eta bota.

Eta Haize, seguru nago zu eta ni, 25ian edo 28xan izan, ez gerala Errosarixo kaleko lur pegajosotik pasatu gabe geratuko, baiña baten bat egongo zan etxian buruari bueltaka gu baiño nerbiosuago, martitzeneko erantzunaren zain. Besteren bat San Bartolome berari erreztatzen (25, mesedez, 25! Eta trukian...) eta hirugarren bat seguru 28xan izateko eskatzen, lanera bueltatzeko eguna izan opor eguna eskatuta zeukalako.

Txiki, Txiki... baiña edarra sortu dau! Eta zuk zer: 28 ala 25?



HAIZEA BERISTAIN



“Ikaragarrixa izan da bi zenbakik sortu deben hillabeteko lurrikaria”

Egun on deizula, Maddintza! Hemen eguzki epela zer danik ere ez dakixe... 30 gradu maiatzian, zu! Eskerrak haizia alde edukitzen doten. Cadizera ere allegatu zan notizia, bai; whatsapp taldiak gaiñezka eta jendia sutan. Han agertu jatan orduan *change.org*-eko firma eskaeria. Herritar diferentien arazoak irakurtzen hasi eta imaginau naban Elgoibar zuriz jantzitta ardo botillak eskuan, txiflo hotsez plazara allegatzen, *Ez, ez, ez, hogeita zortzi, ez* eta pankarta erraldoi bat Urazandira bideko zubixan. Jende ugari astearte atsaldian udaletxeko balkoira begira atzazkalak erdiraiño janda, eta pregoia: “Bai? Bai? Entzuten da? Herritarren nahixa betez eta tradiziuari jarraituz erabaki da Txiki eguna 25ian izango dala aurten ere”. *Loro, loro, loro...* txarangia arkupetik urtetzen! Ikaragarrixa izan da bi zenbakik sortu deben hillabeteko lu-

rikaria. “Hiritar desberdiñak ametsak ditte biltzen”, diño kantuk baiña aldatuko neuke, eta *amets* diñuan lekuan *Txiki* jarri gure herrixaren kasuan! Tristia litzake txarangako instrumentuen erdixak urtia ardo tantarik probatu gabe amaitzia, Errosarixo kalia arnasa ganoraz hartuz eta iñor (eta iñork zu) zapaldu gabe pasatzia eta Pakito Txokolaterua traiñerak bete ezinda ibiltzia plazan, ala? Eta, zer esanik ez, urte batez illuntzeko erromerixan agertzen diran ezkutuko talentu hórren gerri mobimentuak ikusi ezinda geratzia. Penia da txiflua etxian lagatzen dozula 25 eta 28 ez diran urteko beste egun danetan, Elgoibar.

Ni, ikaslia izanik eta bi egunak libre edukitta, sokamuturra kentziaren alde! Gora San(ta) Bartolome (santu eta santarik gabe aukeran) eta biba Txiki! PD: Txosnetako turnuak lotzeko badago .org-rik?

AINHOA ETXEBERRIA

Nutrizionista



Esaten duten bezain beharrezkoa al da esnea?

lean, gure amak sortzen duen esnea edaten dugu, eta gero behi esnea hartzera pasatzen gara. Zenbait lurraldetan, amaren esnea amaitzen edo emateari uzten zaionean, ez dute beste animalia esnerik hartzen, esate baterako; Afrikan, Asian... Zer da esnari intolerantzia izatea? Esnari ez zaio intolerantziarik, laktosari baizik.

Zer da laktosarekiko intolerantzia? Laktasa entzimaren urritasunagatik, laktosa digeritzeko ezintasuna da. Ondorioz, hesteko mukosari egiten zaio kalte, eta urdail eta hesteetako arazoak sortzen dira.

Behi esnearen %60 koipe saturatua da, hau da, kolesterola igotzen duena, gibelko arazoak ematen dituena, bihotzaren funtzionamendua moteltzen duena... hori gutxi ez balitz, esneak dituen kaltzio eta fosforoak ez diote lagatzen burdinari

finkatzen, horregatik ikusi ahal dira esne asko edaten duten ume asko anemiarekin.

Gero eta aditu gehiagok esaten dute behi esnea ez dela jaki egokia. Arnasteko arazoak, zein anemia, zein hestetakoak daudenean, behi esnea kendu egiten dute muki gehiago sortzen dituelako.

Horretaz gain, azkenengo ikerketan ikusi ahal izan da, behiak hazteko esteriodo, antibiotiko, hormonak... ere erabiltzen dituztela, beraz, animalia horiek emandakoa edan edo jaten badugu, konponente txar horiek guztiak gure gorputzera sartzen ditugu.

Honekin ez dugu esan nahi behi esnea txarra denik, kontsumoa neurtu behar dela baizik. Badaudela beste alimentu batzuk onuragarriagoak direnak gure gorputzerako eta gure osasunerako.

U rte asko daramagu eztabaida hau entzuten. Alde batek, gure senari kasu egin behar diogu, eta, bestetik, ikertzaileei entzun. Hori guztia egingadakoan, hau da nik egin dudana balorazioa.

Animalia baten esnea bere umea hazteko eginda dago, izan ere, animalien esneak hazteko hormona animaliak dauzka. Animaliak hazten diren heinean, euren amen esnea hartzeari uzten diote.

Gizakiok zer egiten dugu? Norma-

“Ez dugu esan nahi behi esnea txarra denik, kontsumoa neurtu behar dela baizik”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkoaldueraren Argitargaria

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izaguirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eduarne Izaguirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxebarria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBARKO UDALA

EUSKARA

elgoibar

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ SALATZEN DUT ASTEBURUA, ELGOIBARREN

Euskal Herria aurrera doa, momentu historiko eta pozgarriak bizitzen ari gara, baina zenbait gauza ez dira aldatu: espetxe politikak berean jarraitzen du eta euskal presoen egoera ez da hobetu. Preso gaixoek espetxean segitzen dute, hiru laurdenak bete dituzten askok ere bai, eta salbuespen egoerak ez dira amaitu. Hori guztia gogoan hartuta, eta elgoibartar Sebas Etxaniz herrian nahi dugula eskatzeko, *Salatzen dut* asteburua egingo dugu Elgoibarren. Hauxe prestatu dugun egitaraua:

- Maiatzak 26, ostirala, 18:30etik aurrera: pilota-partidak Kalegoen plazan
- Maitzak 27, larunbata, 18:30etik aurrera: ekitaldi nagusia Madalako parkean: Aurkezpena. Kontzertuak: Alfon eta Gabi, Itziarren Semeak. Karrika antzerki taldea

Denon artean salatuz gero, laster dira etxean. Salatu zuk ere!

Elgoibarko Sare

▶ ELGOIBAR PRO TOUR

Oraindik ere gogoan dut aita eta biok Errosario kaleko leihora ateratzen ginenekoa Elgoibarko Itzuliko partaidadeak bertatik pasatzen ziren unean, orduan merkatu plaza gainean egiten zutelako bazkaria.

Une polita zen, heroi moduko batzuk baitziren euren bastoi eta lokatzez betetako zapatilekin. Bakarrik, taldeka, binaka...

Orain bazkaltzeko tokia ez ezik beste hainbat gauza ere aldatu dira: Elgoibarko Itzuliko magia.

Egia esan, ez nau harritu bizi garen mundu lehiakor honek mendi martxa hau kutsatu izana. 4 ordu, 4 ordu t'erdia, 5 ordu... Gora zuek! nola ez txalotu, sekulako marka egin duzue eta, 38km aldapan gora eta behera ibili eta gero, baina joo kontua ez da hori.

Ni ere korrikalari naiz, eta nire markak hobetzen saiatzen naiz urtetik urtera, baina horretarako, baditut hainbat lasterketa; lasterketa!

Bakoitzak egin dezala nahi duen moduan, ez dagoelako araurik nola egin behar dugun adierazten duenik, baina pena izango litzateke Elgoibarko Itzuliren magia zapuztea.

I.Z.

▶ BIZI POZA TXARANGARI ERANTZUNA

Pintxo txapelketa egunean bertan Mendaroko bizilagun

askok adierazi ziguten bezala, ez genuen asko kanpoko txaranga

ekartzen. Argitu nahi dugu, praktikan, Bizi Pozak duela lehentasun nabarmena herriko jai eta ekintzetan. Hala ere, urtero izaten dira kanpoko taldeen parte-hartzeak. Jabetu gara pintxo lehiaketarako abisatu ez izanak taldeki-deak mindu dituela eta aurrerantzean kontuan hartuko dugu, berriro gerta ez dadin.

Bestalde, ez zaigu zuzena iruditzen idatziaren bigarren zatian leporatu zaiguna: herriko musika talde eta musika hezkuntzarekiko konpromiso eza.

Hezkuntza arloari dagokionez, inplikazioa etengabea izan da Musika Eskolaren sorreratik, eta ezingo digu inork ukatu azken urteetan Udalaren laguntzaz hobekuntzak izan direla Eskolaren administrazio eta antolakuntzan. Musika Talde desberdinekiko harremanean ere saiatu gara azaldutako beharrei erantzuten momentu bakoitzean.

Ahaleginean jarraituko dugu Mendaroko ondare eta kultura musikala mantendu eta indartzen, eta ahaleginean

diogu, argi dugulako ezingo ditugula denen nahiak eta itxaropenak guztiak asetzete. Hemen gaituzue elkarlanerako.

Mendaroko Udal Gobernu

▶ AZKENEAN TXIKI EGUNA 25EAN

Hemendik zorionak eman nahi dizkiegu change.org webgunean herri-ekimena sortu zuen jendeari. Eurerei esker Udaletxeko arduradunek euren erabakia aldatu dute, eta azkenean Txiki Eguna abuztuaren 25ean izango da. Espero dugu hemendik aurrera Udalak herritarren iritzia behin baino gehiagotan kontuan hartzea. Ikusi dugu herritarren indarrarekin gauzak aldatu ditzakegula. Jarraitu dezagun horrela.

Elgoibarko Ahal Dugu

AITOR NOVA

“Elgoibar euskalduna nahi dugulako, eta bide horretan funtsezkoa delako Elgoibarko Izarra. Zenbat eta jende gehiago bildu elkartearen bueltan, bidea politagoa izango da; anitzagoa, eta denon artean helburua askoz lehenago lortuko dugu”



Zergatik merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izateak?

14.000 marihuana landare atzeman ditu Ertzaintzak Arriagako pabiloi batean



Marihuana plantazio handia atzeman zuen joan zen ostegunean Ertzaintzak Arriaga auzoko industria pabiloi batean. Barixakuan eman zuten aditzera notizia. Guztira, 14.000 marihuana landare zenbatu zituzten, eta marihuana landatzeko eta hazteko gailu ugari ere bai: lanparak, urretzatzeko eta argiztatzeko sistemak, tenperatura kontrolatzeko gailuak... Polizia operazio horretan, bost lagun atxilotu zituzten, 39 eta 46 urte bitartekoak guztiak, baina gehiago ere izan daitezke, Ertzaintzak jakinarazi duelako operazioak zabalik jarraitzen duela. Atxilotuak epailearen aurretik pasatu zain daude.

Ertzaintzak berak zabalduko informazioaren arabera, ostegunean gertatu zen dena. Arriaga inguruan patruila lanetan ari ziren Ertzaintzako agenteek marihuana usain handia hartu zuten, 18:30ak bueltan, eta usaina industria-pabiloi batetik zetorrela usainduta, pabiloi atarira jo zuten. Han, hainbat poltsa topatu zituzten, marihuanaz beteta batzuk eta ongarriz beteta beste batzuk. Loreontziak ere topatu zituzten. Atarian, pertsona bat topatu zuten eta zertara dedikatzen ziren galdetuta, pladurrekin lotutako lanak egiten zituztela erantzun zien hark. Barrura sartu zirenean, baina, oso bestelako irudia topatu zuten.

Elgoibarko musika eskolako ustezko lapurra harrapatu du Ertzaintzak

Debako Udalaren lokal batzuetan lapurretan ari zen unean atxilotu zuen Ertzaintzak. 30 urteko gizonezkoa da atxilotua, eta Debabarrenean egindako hogeit bat lapurrekin lotu dute, tartean Elgoibarko musika eskolan egindako hiru lapurrekin.

Debako lokal horretara sarrerako atea indarrez zabaldua sartu zen, eta material elektronikoa atera nahian ari zela harrapatu zuten ertzainek, prentsa ohar bidez zabaldukoaren arabera. Hainbat lapurrekin eta lapurreta ahaleginek lotu dute, tartean gure inguruko bi komentutan egindako bi lapurrekin, hainbat aroztegitan egindako hiru lapurrekin eta Debako, Elgoibarko eta Elbarko musika-eskolan egindako beste hiru lapurrekin. Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolan hiru aldiz sartu ziren, hilabeteko epean.

55.000 euro, Urazandiko argiteria berritzeko

Urazandi auzoko argiteria berritzeko, 55.000 euro erabiliko ditu Elgoibarko Udalak. Argi zaharkituak kendu eta led teknologiadunak jarriko dituzte Urazandi, Kalamua eta Morkaiku kaleetan eta King Kong zubian. Guztira, 120 argi-puntu berrituko dituzte. Udan hasi asmo dituzte lanak, eta ondo bidean, lau bat hilabeteko epean amaituta izango dituztela iragarri du Udalak. Argiztapen sistema berriarekin, energia-kontsumoan gutxi gorabehera %66ko aurrezpena (55.186 KWh/urte) izango dela kalkulatu dute. Era berean, esan dute argiteria publiko hau "seguruagoa eta uniformeagoa" izango dela.

Ardo dastaketaz balorazio positiboa

Ardo dastaketa antolatu zuen Mendaroko Udalak iganderako, eta balorazio positiboa egin du. Bost euroan edalontzia erosi eta sei ardo eta pintxo bat dastatzeko aukera zegoen eta Udalak jakinarazi du 150 edalontzi saldu zituztela. Lehenengo aldia zen Udalak ardo dastaketa antolatzen zuela eta antolatzaileek aitortu dute zalantza zutela, baina gustura daukela herritarrek emandako erantzunarekin. 12:30ean hasi eta 14:30ak arte egon zen plazan ardoa dastatzeko aukera, baina jende askori tarte motza egin zitzaiola uste dute antolatzaileek eta aurreratu dute finduko dutela datorren urtera begira.

Pirritx, porrotx eta Marimotots pailazoak, Mendaron

Pirritx, porrotx eta Marimotots pailazoek *Tipi-tapa*, *korrika* ikuskizuna eskainiko dute Mendaron, ekainaren 2an (ostirala). Ikastolako jolastokian izango da saioa, 18:30etik aurrera, eta Udala maiatzaren 19an hasiko da sarrerak saltzen. Udaletxean, eta Morroskillo eta Roteta dendetan eskuratu ahal izango dira sarrerak, 7 eurotan. Kapotadun aukietan dauden hurrek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

Danobatek urteko batzar orokorra egingo du gaur



Danobat kooperatibako langileek gaur egingo dute urteko batzar nagusia Herriko Antzokian, 16:00etan. Bertan, 2016. urteko kontuak onartzez gain, 2017ko helburuak aztertu eta onartuko dituzte.

Nazioartean egindako salmentek markatu dute Danobaten 2016ko ekitaldia: saldutako makinaren %90 saldu dituzte

atzerrian. Arduradunek nabarmendu dute sektore aeroespazialaren baitan, Alemania eta Ameriketako Estatu Batuetako merkatuetan izan duen arrakasta. Nazioarteko merkatu aeroespazialean lehiatzeko, Danobateko produktu eta zerbitzuek izan behar duten balio erantsia "handia" dela

azaldu dute. Hori dela eta, goi-mailako ikasketak dituzten langile kalifikatuekin lan egitea "ezinbestekoa" zaio erakundeari. Langileen garapen profesionala kooperatibaren erronka estrategikoen artean dago.

Enpresako arduradunek adierazi dute 2016ko ekitaldiko emaitza positiboek aukera emango dutela aurrerantzean ere herriko zein inguruko erakunde sozialetan lantzen eta gauzatzen diren proiektu sozialei laguntza eta babesa emateko.

Egin zaitez bazkide!
Elgoibarko Izarra
943 741 626
 elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Osasuna eta generoari buruz hausnartzeko saioa antolatu dute astelehenerako

Udaleko Berdintasun Sailak *Osasuna eta emakumea: genero ikuspegitik ulertu osasuna* hausnarketa saioa antolatu du, maiatzaren 28an ospatzen den Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Egunaren harira. Loredi Salegik zuzenduko du saioa, eta besteak beste, ondorengo gaiak landuko dituzte: emakumeek osasun arloan dituzten berezitasunak, haien egonezinak nola tratatzen diren, zergatik gaixotzen diren emakumeak, gaixoak eta mendekotasuna duten pertsonak nork zaintzen dituen, emakumeen lanaldi bikoitza eta hirukoitza, haien egonezinak zergatik medikatzen dituzten, eta lan arloan emakumeen osasunaren inguruan zein iritzirik nagusitzen den. Jarduera, Kultur etxeke Hitzaldi gelan egingo da 18:30etatik 20:30etara eta sarrera doakoa da.

Txiki Eguna abuztuaren 25ean izango da

Elgoibarko Udaleko Kultura eta Euskara Batzordea martitzen arratsaldean batzartu zen, eta beste hainbat gairen artean, aurtengo jaietako Txiki Eguna abuztuaren 25ean ospatzea erabaki zuten, eta Gazteen Eguna abuztuaren 28an izango da, astelehenean. Hala ere, Gazteen Egunean izan ohi den kontzertua noiz egingo den zehazteke dago oraindik.





Interes handia. 'Pertsonak zaintzen dituen gizarte batetik etorkizuna eraikitzen' izenburuko hitzaldia eskaini zuen joan zen egunean Mayte Sancho psikologo eta Matia Fundazioko zuzendari ikertzaileak Musika Eskolan, eta aretoa bete egin zen, argazkian ikus daitekeen moduan. Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak antolatu zuen hitzaldia, eta zaintzaren gaia eraman dugu guk ere azalera. Carmen Etxaniz, haren 99 urteko ama Carmen Moulian Mendia eta Guadalupe Garcia zaintzailea batu ditugu argazkirako, Ongizate Sailekoen laguntzarekin.

“Zaintzari balioa eman behar diogu; ezin da soilik emakumeen ardura izan”



► MAYTE SANCHO

MATIA FUNDAZIOKO ZUZENDARI IKERTZAILEA

Zaintzaren gaia plazara ekarri beharraz ohartarazi du Mayte Sanchok, Matia Fundazioa Institutu Gerontologikoko zuzendari ikertzaileak. Gizartea zahartzen ari dela eta egungo produkzio sistema aldatu beharra ezinbesteko ikusten du.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Zahartzarora ez zaio adin jakin bati lotzen orain. Gaur, 60 urte dituen gaztea da. Zeri deitzen diogu zahartzarora?

Zahartzarora ez du definizio argirik, baina behin galdetu nion horixe gai honetan aditua zen 65 bat urteko gizon bati eta honela erantzun zidan: pertsona bat zaharra da nik baino hogeitun urte gehiago dituenean. Erantzun tontoa eman dezake, baina oso interesgarria irizten diot, denoi pasatzen zaigulako hori: sekula ez dugula gure burua zahartzat identifikatzen, eta urteak bete ahala, zahartzaroren langa

ere igotzen joaten gara. Egia da ematen duela gero eta beranduago zahartzen gara, baina irudipena baino ez da.

◆ **Panorama zaila aurreikus daiteke guztiontzat. Gero eta urte gehiago hartzen ditugu eta guraso izatea erabakitzen dugunok ere gero eta beranduago ekartzen ditugu seme-alabak. Haurrak eta adinekoak bueltan ditugula, denok gaude lotuta. Kontziente gara bizi-itxaropena luzatzeak berariaz dakarren kostuaz?**

Nik uste dut ezetz, ez gara kontura-

tzen, baina gauza bat azpimarratu nahiko nuke: inork ez du hiltzerik nahi eta zortekoak gara bizi garen lekuan bizitzeagatik, bizi-itxaropena asko luzatu delako. Nik uste dut hortik abiatu beharko genukeela beti gogoeta, gizarte adindun bat lorpen sozial bat delako berez, munduan oso herrialde gutxitan lortu dutelako bizi-itxaropena horrenbeste luzatzea, baina jakina, horrek kostu bat dauka. Zer dakarren edo ekarri beharko lukeen honek? Gizartea berrantolatu beharra. Eta kosta egiten zaigu ulertzea, baina gaur jaiotzen diren

umeen %50ek 100 urte beteko dituzte, eta beraz, ezinbestekoa zaigu gizarte-antolamentua errealitate berri horretara egokitzea. Zaintzari balioa eman behar diogu, zaintza ezin delako soilik emakumeen ardurara izan; ezin delako ezta ere halako gai bat oso-osoan familien ardurara laga eta ezta erantzukizun guztia administrazio publikoei egotzi ere. Zaintzaren gaia plazara ekarri behar dugu.

♦ **Datuek erakusten dute zaintza emakumeen eginkizuna izan dela ia eskubikoan, bai, baina orain, gainera, emakumeon egoera ere aldatu da.**

Bai, zalantzarik gabe. Zaintzaren gaia ilunpetik argitara ekarri behar dugu, askotan, gehiegitan, esparru pribatuko gaitzat hartu delako. Familian bilatu behar izaten zitzaien irtenbidea gai honi, baina zorionez, hori ari da aldatzen. Erakunde publikoek eta gizarte babeserako sektoreak onartu dute euren erantzukizuna gai honetan, eta legean ere jaso dute. Hor dugu, adibidez, Autonomia Pertsonalerako Legea eta Mendekotasun Legea, duela hamar bat urte sortutakoak. Beharbada arretarako dugun sistema eta legea bera ere gehiago garatu beharko genituzke, gehiago findu, baina ez horrenbeste edukiz, hiritargoaren eskubide subjektiboak jasota dagoelako. Beraz, esan dezakegu adinekoen zaintzaren gaia – eta berdin mendekotasunen bat dutenena – atera dugula esparru pribatutik publikora.

♦ **Hein handi batean oraindik emakumeen kontua dela jakinda, zalantza daukat pribatutik publikora atera ote dugun.**

Bai, arlo publikora ekarri dugu, baina hala ere, ez dugu ahaztu behar, ez, genero ikuspegitik zer zuzendu handia daukagula oraindik, gaur gaurkoz ematen duelako zaintza emakumen kontua dela eta ez dagoelako hori pentsatzea baino gauza okerragorik. [Ehun zaintzailetik 85 emakumezkoak dira]. Esperientziak frogatu du, inork zalantzarik balu ere, gizonak emakumeak bezain zaintzailak onak izan daitezkeela, eta gainera, zaintzaren ardurara oso-osoan emakumeen bizkar gainean lagatze hori derrigor-derrigor aldatu

behar dugula, batetik, ez delako justua emakumeek euren ibilbide profesionalari ez ezik bizitza pribatua gozatzeko aukerari ere uko egin behar izatea inguruko guztiak zaintzeko, eta bestetik, gizarte honek ezin diolako egoera horri luze eutsi. Zaintza denon ardurara da.

“Gaur, eta bereziki emakumeek, euren amek eta amamek baino gehiago zaintzen dute”

♦ **Familia aipatu duzu. Hori bera ere aldatu da. Gaur, familiak txikiagoak dira.**

Bai, gauza asko aldatu dira, baina aldatu diren gauza guztien artean, bereziki bi nabarmenduko nituzke: zaintzen pasa beharreko denbora eta zaintzen intentsitatea. Orain 30 bat urte, ictusa izaten zuen pertsona batek gehienez ere urtebete inguru hartzen zuen, eta orain, berriz, lasai asko har ditzake 13 bat urte. Eta hein handi batean horrek desorekatu digu gure zaintza-eredua. Eta horri intentsitatearen kontua gehitu behar diogu, ez dugulako ahaztu behar 13 urtez zaindua izan behar duen horrek gero eta behar handiagoak izango dituela, gero eta arreta handiagoa eskatuko digula, gero eta ordu gehiago dedikatu beharko dizkiogula. Pertsona horren osasun-beharrak konplikatu ahala, dena zailduko da, eta kasu batzuetan, familiek ezinbestean eskatu beharko dute laguntza profesionala. Zaintzaileri – izan familia osoa edo norbanakoa – sakrifizio handia eskatuko zaio. Ardurara profesionalak eta pertsonalak kontziliatu behar hori oso da nekagarria, eta are gehiago orain medikuntza aurrerapeinei esker bizi-itxaropena horrenbeste luzatu denean.

♦ **Sakrifizioa aipatu duzu. Iruditzen zaizu sakrifizioarako kultura ere aldatu egin dela?**

Izan daiteke, baina datuek erakusten digute, gaur eta bereziki emakumeek,

euren amek eta amamek baino gehiago zaintzen dutela. Kuriosoa da, eta paradaxikoa ematen du, baina hala da, eta hala da lehen aipatu ditugun bi arrazoiengatik: denbora eta intentsitatea. Egia da baita ere baloreak aldatu egin direla; horren zalantzarik ez daukat, baina gaur egun etxetik kanpora lanean ari den emakume batek egiten duten sakrifizioa oso da handia, enplegatua ez ezik, ama, emazte, bikotekide, etxekoandre... eta beste gauza asko ere badelako. Beraz, baloreak oro har aldatu egin dira, bai, baina uste duzu emakumei dagokienean horrenbeste aldatu direla? Zoritxarrez ez. Nahi nuke benetan aldatuko balira. Gizarte arduratsua bat nahi dugu.

♦ **Nolanahi ere, iruditzen zaizu orduan baloreak landu beharko genituzkeela?**

Beti da interesgarria balore batzuk gehiago lantzea: elkartasuna, errespetua, besteenganako begirunea, zaintza, empatia, pazientzia, tolerantzia, entzuten jakitea, elkar ulertzea, saiatzearen beharra eta saritu gabeko esfortzuen garrantzia... Azken batean, elkarbizitzarako eta garapen pertsonalerako nahiz kolektiborako ezinbestekoak diren baloreak dira.

♦ **Helburu horrekin herrialde batzuetan egin izan dira adinekoak eta haurrak espazio berean batzeko saioak. Zer iruditzen zaizkizu?**

Bai, eta interesgarriak iruditzen zaizkit, baina ez dago egitasmo handirik sortu beharrik, baloreak lantzeko. Nahikoa da umetatik gure seme-alabak errespetuan hezteko eta erakusteko jaio direnetik jaso duten zaintza hori modu naturalean jaso dutela eta erakusteko hori baloratzen.

♦ **Aurreko batean irakurritakoa ekarri nahi dizut hona: gure seme-alabentzat ahalik eta zaintzailerik onena bilatzen dugula zioten artikuluan, baina ez dugula horrenbesteko nekerik hartzen gure adinekoak zainduko dituen topatzeko orduan. Zer duzu esateko?**

Bai, egon daiteke hortik ere pixkat. Betikora bueltatzen gara: botere publikoak ez dira ari bermatzen herritarrek behar dituzten zaintza mota guztiak. Eta familien edo zaintza behar duten perso-

nen euren ahalmen ekonomikoak ez duenean ematen, zaila da ondo prestatutako zaintzailea topatzea gure senidea zaintzeko, prezio duin batean. Dena den, uste dut orokorrean familiak saiatzeko diru ahalik eta zaintzailerik onenak topatzen, baina bistan da administrazioaren laguntza eta orientazioa behar-beharrezko dituztela eta beti ez dutela izaten.

♦ Zein izaten da adinekoen kezka nagusia?

Seme-alabentzako karga bihurtzea. Gaur oso adineko gutxi pentsatzen du etxean zainduko dutenik. Ez dago haien planetan laguntza behar balute euren seme-alaben etxetara lekualdatzea, han zain ditzaten. Hori aldatzen ari da, besteak beste, konturatzen direlako etxeak txikiak direla, ez dagoela denentzako lekurik, eta gainera, gazteek etxetik kanpora igarotzen dutelako eguna. Hori ez da bideragarria. Baina gehiago ere esango nizuke. Adinekoek badute beste ardurua nagusi bat: ia gai izango ote diren beste batzuk zaintzeko edo etxekoei laguntzeko. Ez dugu ahaztu behar –eta nahi nuke hemen indarra egitea–, kuantitatiboki, zainduak diren baino gehiago zaintzen eta laguntzen dutela gaur gure adinekoek.

♦ Askorentzat adinekoentzako egoitzak eta zahar-etxeak dira aukera bakarra. Iruditzen zaizu lehen baino onartuagoak daudela?

Nik garbi daukat bai adinekoek eta baita beste edozeinek ere beti dutela nahiago euren betiko inguruan zahartzea, eta nork zaindu baldin badute behintzat, etxean gelditzea. Begira, aukera gehiago ere badaude, nahiz hemen oso gutxi egin den haiek sustatzeko.

♦ Zahartzaroaz gozatzea ere klase sozialari lotutako kontua da beraz.

Bai, baina neurri batean, zahartzaroaz gozatzea jarrera kontua ere badelako. Baina, jakina, jarrera hori izatea edo hartzea errazago dute batzuek beste batzuek baino, eta hori, zoritxarrez, oso lotua dago bakoitzaren ahalmen ekonomikoarekin. Osasunaren faktorea ere hor dago, jakina, baina hori ere, zoritxarrez, norbe-

raren ahalmen ekonomikoarekin lotua dago, hein handi batean.

♦ Zaintzaren oinarria zein da?

Erantzun zaila da galdera hori, baina nik esango nuke pertsonen, zaintzaileen eta zainduen, nahiak gogobetetzea jarri behar dela beti zaintzaren oinarrian, eta horretarako, tratua eta komunikazioa zaintzea ezinbestekoa da. Beharrezkoa zaigu jakitea beste baten alde egiten ari garen hori dela pertsona horrek nahi eta behar duena. Nik ezin dut erabaki bere partez, berari kontsultatu gabe. Kontuan izan behar dugu beti gaixoareneko adinekoaren nahia, baita erabakitze gaitasunik ez duenean ere. Guk geuretzat nahiko genukeen zaintza hori da besteek guretzat merezi dutena.

“Zainduak diren baino gehiago zaintzen eta laguntzen dute adinekoek kuantitatiboki”

♦ Ados. Erabakitze gaitasuna dutenen kasuan, badaukagu zer nahiko luketen jakiteko modua, baina besteen kasuan? Ez du zeregiri erraza izan behar zaintzailearenak.

Bide asko daude jakitzeko gure ematen diogun tratua gure gustura dagoen edo ez. Aholku bat emango dizut gure ezin dugunerako beste pertsonarekin komunikatu erabakitze gaitasunik ez duela eta ez duela inguruan ondo ezagutu dezakeen senide gerturik –normalean beti dago norbait–: jarri bere azalean; seguru bere azalean jarrita, tratua hobea emango diozula. ‘Ez da ezertaz enteratzen eta berdin da’ pentsatuz gero, arriskua dago behar bezala ez tratatzeko. Eta askotan ikusten dugu hori: demetzia arazoak dituen adineko bat ari da goilara ahora eraman nahian eta etortzen da zaintzailea, kentzen dio goilara eta irentsi arazten dio purea di-da batean. Hori onartezina da. Jarri zaitezte gaixo horren

azalean! Errespetatu behar da duen autonomia gradu hori, txikia izanda ere; lagundu iezaiozun nahi bada, baina laga bere errimora jan dezan. Duintasuna dago beti tratua onaren oinarrian.

♦ Hitz egin dezagun zaintzaile profesionalenaz. Baloratuta daude?

Zaintzaile profesional gehienak ere emakumezkoak dira, eta oro har ez daude baloratuta. Haien lana ez dago aitortuta. Ehundaka milaka emakume ari dira adinekoak zaintzen eta talde ikusezina dira. Jo dezagun lan-egoera arautua dutela eta lan-ordutegi eta soldata duin bat –askotan ez da betetzen–, baina kasu horietan ere, egiten duten lanak ez du behar besteko aitortzarik, oso-oso beharrezko izanda ere.

♦ Zerk kezkatzen ditu senideren bat zaintzen daudenak?

Ondo ez egiteak kezkatzen ditu; gai ez izateak euren senidea behar bezala zaintzeko, senide horri behar beste denbora eskaintzeko denborarik ez izateak. Nagusiki horrek. Kezkatzen ditu baita ere behar beste baliabide ekonomikorik ez izateak, sarri ez dagoelako jakitzerik denboran zenbat luzatuko den egoera hori. Eta kezkatzen ditu egoera horrek irauten bitartean gai izango ote diren gainerako arduei erantzuteko, gai izango ote diren arduraren profesionali erantzun eta etxeko gainerako guztiei behar bezalako arreta eskaintzeko. Karga handia izaten da, eta pertsonok mugak ditugu, ezin diogu denari erantzun.

♦ Zer gehitu nahiko zenuke?

Produktzio eta erreproduktzio eredua aldatu behar dugula. Lanak betetzen du gure egunerokoaren parte handi bat, izugarrikoa, gehiegizkoa, eta horrek ez dio lagatzen gizarte honi pertsonak duintasunez tratatzen eta ez die lagatzen pertsona horiei duintasunez ugaltzen. Kontziliazioaren gaia lehentetsi behar dugu, ezinbestekoa zaigu, eta era berean gogoeta egin behar dugu elkarrekotasun printzipioaren inguruan ere, kiebra jota dagoen kontua delako.

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Santa Klara auzoko goiko aldeko parkea egoera txarrean dago: "Orain dela zazpi urte egin zituzten Geminis enpresa zegoen gunean etxe berriak, eta ordutik, parkea amaitu gabe dago. Espaloietan ume karroekin edo gurgildun aulkarekin ibili ahal izateko aldapatxoak falta dira, eta argiztapena oso kaxkarra da. Orain, gainera, baldosak ere aske daude, eta erori egiten dira. Auto gidariek abiadura murrizteko badenak ere egin gabe daude oraindik. Aspalditik gabiltza gai honekin borrokan, eta udaletxean ere jarri nuen kexa, baina etxebizitzak eraiki zituen enpresak ez digu jaramonik egiten, eta Udalak ere ez. Josu Arraiz Hirigintza Saileko arduradunak esandakoaren arabera, Brigadakoak baldosak konpontzen ari dira, eta zehaztu du berak ez daukala gainerako kexen berri. Dena den, esan du begiratuko dutela eta kontuan hartuko dutela gaia.

Zakarrontziak falta dira herrian: "King-Kong eta Maala artean ez dago zakarrontzirik. King-Kong inguruan dago bat, eta hortik Maalako parkera arte ez dago beste zakarrontzirik. Eskertuko genuke tarte horretan zakarrontziren bat gehiago jartzea. Kaleak garbi mantentzeko beharrezkoak dira zakarrontziak, bestela jendeak erosoena egiten du, hau da, zakarrak lurrera bota. Badakigu, lehen, zapatuetan etortzen zen jendeak zakarrontziak puskatzen zituela, baina orain ez da horrenbeste jende etortzen, eta uste dugu badela ordua zakarrontzi gehiago jartzeko". Josu Arraiz Hirigintza Saileko arduradunak dio ez dela distantzia handiegia, eta uste du kalea txukun mantendu daitekeela egun dauden zakarrontziekin.



Txiki Eguna abuztuaren 25ean izango da: "Azkenean Txiki Eguna abuztuaren 25ean izango da, tradizioak agintzen duen bezala. Eskerrak eman nahi dizkiegu *Change.org* webgunean gure eskaria aintzat hartu eta babesa eman diguten herritar guztiei, eta baita ere Elgoibarko Udalari, herritarren ahotsa entzun eta Txiki Eguna abuztuaren 28ra aldatzeko erabakia atzera bota duelako. Mila esker guztioi".



Txalo bero bat CD Elgoibarko Ohorezko Jubenilen entrenatzaileei: «Gurasoek eta jokalariek eskerrak eman nahi dizkiegu CD Elgoibarko Ohorezko Jubenil taldeko entrenatzaileei. Andoni Duarte eta Mikel Garate txalotu nahi ditugu, denboraldian zehar egin duten lan bikainagatik, ligan laugarren postua lortzeagatik eta Portugalen nazioarteko torneo irabazteagatik. Zorionak, eta eskerrik asko»

Txalo bat Morkaikori: "Txalotu nahi nuke Morkaiko mendi elkartea, finalista eguneko herri bazkarian plater, edalontzi eta mahai-tresna organikoak erabili zituelako, eta hondakinak modu egokian sailkatu zituelako. Eredugarria benetan".

▶ IÑIGO CEARSOLO

ELGOIBARKO MUSIKA BANDA KO KLARINETE JOLEA

Odolean darama musika Iñigo Cearsolok. Umetan hasi zen musika ikasten, eta 13 urte zituela eskaini zuen bere estreinako kontzertua Elgoibarko Musika Bandarekin, Jose Zubiaurre *Balle* zuzendari zela. 34 urte daramatza bandan klarineta jotzen, baina iaz beste pauso bat eman zuen musikari ibilbidean: Zuzendaritza ikasten hasi zen. Hiru urteko ikasketak dira, eta eskola teorikoez gain, praktikak ere egin behar izaten dituzte. Zeregin horretan, Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa zuzendu zuen joan zen astean. Eibarko Coliseo antzokian izan zen bere estreinaldia zuzendari paperean, eta hilaren 28an Durangoko musika banda zuzenduko du, Durangon.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Ostiralean zuzendu zenuen zure estreinako kontzertua. Zer moduz irten zen saioa?

Primeran! Niretzako ahaztezina izango da. Aitortu behar dut hasieran urduri nengoela, baina lehenengo obra amaitu genuenean joan ziren urdiritasunak ere. Kontzertu hasieran ahoa lehor lehor neukan, baina gero lasai-lasai jardun nuen. Kontzertua aurrera joan ahala, orduan eta gehiago gozatzen nuen. Egia da asko entsaiatu genuela eta obra guztiak oso ondo prestatuta genituela. Musikoengan ere sekulako segurtasuna nabari nuen, eta horrek lasaitasuna eman zidan.

♦ Laskurainek, Debabarreneko Orkestraren eta Orfeoia zuzendariak, zioen jende gutxi joaten dela kontzertuetara.

Etorri zen jendea ostiralean Coliseora, baina egia esan, ez nik nahiko nukeen beste. Ostiralean zen saioa, 20:30ean... ez da ordurik onena. Eibarren eskaintzen genuen hirugarren kontzertua zen, eta 120-150 bat ikusle egongo zirela uste dut. Aurkezpen kontzertuan jende gehiago egon zen, eta bigarren emanaldia ere jendetsua izan zen, abesbatzak eta musika eskolako umeez ere parte hartu zutelako.

♦ Elgoibarko Musika Bandak, aldiz, sekulako arrakasta dauka. Zein da sekretua?

Ez dakit, baina sekulakoa da Elgoibarko Musika Bandarena. Batetik, gure arteko giroa ikaragarria da; ezin hobea. Kanpoko musikariak gonbidatzen ditugunean ere beti nabarmentzen dute musikariaren arteko giroa. Bestalde, gure publikoa txapela kentzeko modukoa da, primerakoa. Urte amaieran Musika Bandaren memoria egiten dut, eta han jasotzen dut kontzertu bakoitzera joaten den ikusle kopurua, eta beti ibiltzen gara 250etik gora. Gu geu ere harritu izan gara askotan. Eguraldi ona egin izan duen domekaren baten, kontzertu aurretik gure artean komentatu izan dugu ez dela jende asko etorriko, eta teloa irekitzean, sorpresa! Antzokia beteta! Elgoibarko ikusentzulegoa, gainera, oso ondo hezitakoa da. Detaile txikiekin erakusten dute hori. Adibidez



“Ahaztezina izango da niretzat Debabarreneko Orkestra zuzendu izana”

badaude obra batzuk ematen dutenak bukatu direla, baina oraindik zati bat falta zaiena. Herri askotan bitarte horretan jendea txaloka hasten da, baina Elgoibarren amaierara arte itxaroten dute ikusleek. Horrez gain, antzokiko sarrera-irteerak obren artean egiten dituzte. Errespetu handiko publikoa da, eta zorte handia daukagu.

♦ Elgoibarren musikarako zaletasuna badagoela esango zen nuke?

Bai, eta etorkizuna ziurtatua dago. Musika Eskolak lan handia egiten du alor horretan. Musika Bandak eta Musika Eskolak harreman ona dute, eta hortik etorriko da erreleboa. Guk egunen baten utziko dugu, eta beste batzuk etorriko dira.

♦ 34 urte daramatzazu zuek bandan. Noiz egin beharko dizute erreleboa?

Oraindik jarraitzeko asmoa daukat. Gustatuko litzaidake bandan 50 urte egitea behintzat. 13 urte egiteko nituela sartu nintzen bandan, 1983an. Hasieran txapak jotzen nituen, baina aldi berean klarineta ikasten ari nintzen. Klarineta jotzen ikasi bitartean musika banda barrutik ezagutzeko aukera izan nuen. Kontzertu

batzuetan txapak jo nituen, eta gero klarinetearekin jarraitu nuen. Alaba ere klarinetea ikasten dabil orain. Urriari Musika Bandak eta Banda Txikiak elkarrekin eskaini genuen kontzertua eta han egin zuen debuta alabak. Hunkigarria izan zen. Bera pozik, eta ni gehiago. Beste bi txikiak ere hasi dira etxean ni imitatzen. Zuzendari lanetarako prestatzen ikusten naute, eta eurak ere hartzen dute makila bat eta eskuak mugitzen hasten dira. Polita da. Musikarako zaletasuna transmititu diet.

◆ **Nola bizi dituzu kontzertuak gusturago, musikari ala zuzendari paperean?**

Bi esperientzia erabat desberdin dira; ez daukate zerikusirik. Elgoibarko Musika Bandan 34 urte daramatzat, eta esperientzia horrek lasaitasun handia ematen du, baina taldearen aurrean zuzentzen jartzea beste mundu bat da. Zuk nahi duzuna musikariei eskatu eta haiek zure mezua ulertu eta eskatutakoa ematea sekulakoa da. Ez da erraza, eta oraindik oso maila apalean gaude. Nire irakasleak esaten du zuzendaritzan bost dimensio plano daukela eta bosgarren plano hori plano espirituala dela. Horra iristea sekulakoa dela dio. Ni hasi besterik ez naiz egin.

◆ **Iaz hasi zenituen Zuzendaritza ikasketak. Nolatan eman zenuen pauso hori?**

Betidunik gustatu izan zait musika zuzendaritza, eta azkenean iaz animatu nintzen. Jakin nahi nuen zer sentitzen zen musika talde baten aurrean batuta eskuan hartuta. Hor goian jarri eta musikariekin hartu-eman nolakoa zen ezagutze horrek beti sortu dit jakinmina. Debabarreneko Orkestra Sinfonikoan ere klarinetea jotzen dut eta zuzendariordea ere banaiz. Nire ikasketetarako praktikak egiteko aukera eskaintzen dit orkestrak, eta hori oso ondo datorkit. Hiru urteko ikasketak dira, eta lan teorikoez gain, praktikak ere oso garrantzitsuak dira. Kurtsoa online egiten dugu, Huelvako Navarro Lara campusean, eta 35 herrialdetako 300 ikasle gaude matrikulatuta. Zapatu eta domeketan izaten dira klaseak, eta horrez gain hilerok lan teorikoak eta praktikoak egin behar izaten dira. Norberak grabazio batzuk egin eta irakasleari bidaltzen dizkiogu, eta hilean behin grabazio horietako bat aztertzen dugu denon artean. Egun batzuetan mundu osoko 140 bat ikasle egoten gara aldi berean konektatuta. Pieza horri buruzko iritziak ematen ditugu, irakasleak zuzenketak egiten ditu... Oso interesgarria da. Ikasketa hauek ez daude homologatuta Es-

painian eta azterketak ditugunean Londresetik etorriko dira epai-mahaikideak gu neurtzera. Huelvara etorriko dira, eta han egingo ditugu azterketak.

◆ **Nola definituko zenuke banda bat zuzentzea zer den?**

Musika banda bat zuzentzea ez da batuta eskuan hartu eta gora eta behera mugitzea. Hori baino askoz gehiago da. Zuzentzerakoan begiradak daude, gorputz espresioa, emozioak, energia... Gauza pila bat hartu behar dira kontuan. Eta egon se-guru banda batek ez duela emaitza berbera emango zuzendari batekin edo beste batekin. Zuzendariaren papera oso garrantzitsua da. Orain dela gutxi Leonard Berstein zuzendari eta konpositore estatubatuarren kontzertu bat ikusi nuen, eta eskuak mugitu gabe zuzentzen zuen banda. Begirada eta keinuak erabiltzen zituen bakarrik. Sekulako artea da hori.

◆ **Barixakuan estreinatutako zuzendari paperean, eta hilaren 28an beste kontzertu bat zuzenduko duzu. Kontaiguzu.**

Maiatzaren 28an Durangoko musika banda zuzenduko dut, Durangon bertan. Santa Maria elizako arkupeetan izango da saioa, 12:30ean. Euskal Jaiak ospatuko dituzte, eta beste hainbat ekitaldiren barruan, musika bandak kontzertua eskainiko du, eta ni izango naiz zuzendaria. Orain arte zegoen zuzendariak banda utzi egin du, eta zuzendari bila dabilza. Momentuz bat probatu dute, orain ni joango naiz eta nire ondoren besteren bat ere egongo da. Gero beraien aukeratuko dute.

◆ **Gustatuko litzazuke zu izatea aukeratua?**


Bai, jakina. Nire musika ibilbidean beste pauso bat izango litzateke; etapa berri bat. Durangon astean behin izaten dira entseguak, eta dagoeneko egin ditugu bi entsegu hilaren 28ko kontzertua prestatzeko, baina oraindik ez ditut abestiak guztiz lotuta ikusten, eta urduri nabil. Beste bi entsegu geratzen zaizkigu eta espero dut nahikoa izatea. Oso garrantzitsua da kontzertuak ondo prestatzea. Elgoibarko bandarekin ere astero biltzen gara, eta horrez gain norberak bere etxean ere orduak sartzen ditugu. Kontzertuetan inprobisazioak ez du ezertarako balio, dena lotuta eraman behar da.

◆ **Ikusten al duzu zure burua Elgoibarko Musika Bandako zuzendari?**

Galdera ona! Momentuz Txomin eta Gorka daude, baina kontzerturen bat zuzentzea gustatuko litzaidake, bai.



Agur kontzertua eskainiko du Napoka Iriak uztailaren 7an



Ander Mujika eta Miren Narbaizak osatzen duten Napoka Iria bikoteak azken kontzertua eskainiko du uztailaren 7an, Eibarko Coliseo antzokian. Azkenaldian bakoitza bere aldetik hainbat proiektutan murgilduta ibili dira, eta Napoka Iria isilik zegoen. Aste honetan bertan iragarri dute etenaldi luze honen ondoren, Napoka Iria isiltzeko tenorea iritsi dela. Kontzertu berezia izango da, eta bikotearen ibilbide profesionalean lagun izan dituzten hainbat musikari eta lagunek ere hartuko dute parte. Bikoteak adierazi du ez dela erabaki erraza izan: “Amaierek dakarten sentimendu askoren nahasmena izan dugu; tristura eta oinazea batetik, damuaren beldurra, baina baita asetasuna eta poztasuna ere. Eta behin erabakia hartu dugunean, lasaitua gorputzean, malkoak begietan eta irribarrea ahoan”.

Hamabi urteko ibilbidea egin du Napoka Iriak, eta hiru disko utzi ditu: *Napoka Iria* (2006), *lehertarazi edifizioak* (2011) eta *Arnasten ikasteko berriz* (2013).

60 urtetik gorakoentzako musika eskaintza prestatu du Musika Eskolak

Ohiko musika edo instrumentu eskoletatik harago, musikaz gozatzeko eskaintza berezia prestatu du Inazio Bereziartua musika eskolak 60 urtetik gorakoentzako. Ekimen berri honetan musika beste ikuspuntu batetik landuko dute. Musikarekin jolastuz, sormena eta gorputz espresio fisiko, emozionala, intelektual eta soziala sustatuko dute. Taldekako saioak izango dira, eta talde bakoitzak astean ordubeteko saioa egingo du. Interesatuek Inazio Bereziartua musika eskolan eskuratu dezakete informazio gehiago


Amorantek kontzertua eskainiko du domekan, Mendaron

Amoranteren kontzertua izango da domekan Mendaroko San Agustin kulturegian, 19:00etatik aurrera. Iban Urizar elgoibartarra da Amorante. Musika esperimental eta kantu tradizionala uztartzen ditu bakarkako proiektu honetan Urizarrek, eta esperimentazioaren eta inprobisazioaren bidea lantzen ditu. Gitarra, ahotsa, beatbox pixkat eta tronpetaren laguntzaz lantzen du bere kantu-egia Amorantek.

Elgoibarko Udalak Ludotekako eta Gaztelekuko logotipoak berritzeko lehiaketa antolatu du

Elgoibarko Ludotekak eta Gaztelekuak hamar urte beteko dituzte aurten, eta horren harira, bi Udal Zerbitzuetako logotipoak berritzeko lehiaketa antolatu du Udalak. Edozein elgoibartarrek hartu dezake parte lehiaketan, eta partaide bakoitzak gehienez lau logotipo aurkeztu ahal izango ditu (ekipamendu bakoitzerako bi). Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 8a izango da. Epaimahaiak ekainaren 9an bilduko da. Ludotekako epaimahaiak ondorengoek osatuko dute: Udaleko haur, nerabe eta gazteen sustapen arloko teknikariak eta zinegotziak, Ludotekako hezitzaile ordezkari batek, Ludotekako bazkide den haur batek eta arte grafikoa aditua den pertsona batek. Gaztelekuko logotipoa, berriz, ondorengoek aukeratu dute: Udaleko haur, nerabe eta gazteen sustapen arloko teknikariak eta zinegotziak, Gaztelekuko hezitzaile ordezkari batek, Gaztelekuko erabiltzaile den nerabe batek eta arte grafikoa aditua den pertsona batek.

Bi sari emango dituzte; bat, Ludotekako logotipoarentzat, eta bestea, Gaztelekukoarentzat. Irabazleek Elgoibarko dendetan erosketak egiteko 500 euroko bale bana jasoko dute. Informazio gehiagorako: Udalaren Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailean: 943 741 050 / gazteria@elgoibar.eus / www.elgoibar.eus / Ludotekan: 943 748 883; ludoteka@elgoibar.org / Gaztelekuan: 943 743 228; gaztelekua@elgoibar.org



Garaipena eta errekorra lortu ditu Maiorak Erlaitz Aiako Harriak mendi lasterketan



Erlaitz Aiako Harriak 22,5 kilometroko mendi lasterketa jokatu zuten maiatzaren 14an, Irunen, eta Maite Maiora mendararra izan zen azkarrena emakumezkoetan. Antxitikariek %38 eta 4%42 desnibeleko aldapak igo behar izan zituzten Irumargarrietako tontorrera (821 m.) bidean. Maiorak bi ordu, lau minutu eta segundu bat behar izan zituen proba osatzeko, eta bi minutu eta 16 segunduan hobetu zuen probako errekorra. Bost minututik gorako alde atera zion bigarren egin zuen Oihana Azkorbeitiari (02:09:34). Maiatzaren 28an jokatuko den Zegama Aizkorri mendi maratoiari begira dituen sentazioak probatu nahi zituen Maiorak, eta ondo ikusi du bere burua.

S.D. Eibarren babeserak

Eibar futbol taldeak eliteko sei kirolari babestuko ditu Gipuzkoako Aldundiaren eskutik, biek sinatu duten lankidetzaren hitzarmenaren harira. Kirolgiren bekaren bidez Eibarren laguntza jasoko duten sei kirolariak hauek dira: Markel Alberdi, Ander Romarate, Malen Ruiz de Azua, Pello Osoro, Odei Jainaga eta Maite Maiora mendararra. Eibarretik jasoko duten ekarpen ekonomikoaz gain, klubaren laguntza pertsonal teknikoaren laguntza izango dute, eta Ipurua estadioko instalazioak erabiltzeko aukera.

Eli Ibarrek Athletic lagako du

Athleticen zein emakumeen futboleko erreferentea den Eli Ibarrek jakinarazi du hurrengo denboraldian ez duela Athletic Cluben jarraituko. Ibarrek 2002an egin zuen debuta emakumezkoen Athletic taldearekin, taldea sortu zuten urtean, hain justu ere. Hurrezgero, sekulako palmaresa osatu du. Hamabost denboralditan 412 partida jokatu ditu. Bera da Bilboko taldearekin partida gehien jokatu dituen emakumea. Erdilari elgoibartarrak eginko lana funtsezkoa izan da gainera, taldeak irabazi dituen Espainiako bost Ligetan, azkena 2015-2016 denboraldian. Taldearen historian hirugarren goletzailerik onena ere izan da, 111 gol sartuta.



June Loidi eta Asier Urain Euskadiko eskubaloiko jokalaririk onenak izateko izendatuen artean

Euskadiko Eskubaloiko Federazioak denboraldiko jokalaririk onenak aukeratzeko dituen kategoria bakoitzeko lau izendatuak zein diren jakinarazi ditu. Horien artean daude Sanloko bi jokalaririk, June Loidi eta Asier Urain, jubenil mailako jokalaririk biak. Izendatuei botoa emateko aukera dago Federazioaren webguneko honako loturan: <http://fvascabm.com/encuesta.asp>.

Hain zuzen June Loidik jokatzen duen Tecnifuelle taldeak Gipuzkoako kopako finala jokatu du Bera-Beraren aurka, Olaizaga kiroldegian, bihar, 12:00etan.



Morkaikoren Egunak 660 mendizale batu zituen



Morkaikoren Egunak jendetza batu du aurten ere mendizaleen jaira, 660 lagun inguru guztira. Elgoibarko Itzultxoan 400 lagunek parte hartu zuten; eta, Elgoibarko Mendi Itzulian, berriz, 257 lagunek osatu zuten 38 kilometroko ibilbidea. Finalista Eguneko dominak ere banatu zituzten, urtean zehar igotako mendiengatik. Aurten 118 domina banatu dituzte. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.barren.eus



Unai Loiolak irabazi du Bergarako bola joko txapelketa

Gipuzkoako hiru txirlo bola joko txapelketako zazpigarren tiraldia jokatu zuten aurreko zapatuan Bergarako San Joxepeko bolatokian. San Migel taldeko Unai Loiolak irabazi zuen proba, eta hirugarren egin zuen Loiolaren taldekide Jabier Osorok, egungo Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak. 57 bolarik parte hartu zuten Bergarako tiraldian, eta Unai Loiolak zazpi txirlo bola zituen hiru tiralditan. Floreaga taldeko Jose Muñoz azkoitiarra dago unehonetan sailkapen nagusiko lidergoan, 35 txirlo botata. Zortzigarren jardunaldia Elgetan jokatuko dute, bihar, maiatzak 20.



Futbol Eskola, kalera

C.D. Elgoibarren mendeurrena ospatzeko beste ekitaldi bat egingo dute gaur, hilak 19, herriko hiru gunetan. Izan ere, futbola herritarrei gerturatzeko helburuarekin, Futbol Eskolako umeen arteko partidak antolatu dituzte Kalegoen Plazan, Plaza Txikian eta Lekuederreko kantxan, 18:00etatik aurrera. Elgoibarko Udalak ere omenaldia eskainiko dio C.D. Elgoibarri. Dantzariak egingo diete harrera futbol taldeko ardura-dunei, 19:30ean, udaletxeko sarrean eta pleno aretora igoko dira gero. 20:00etan, berriz, kontzertua eskainiko du Aterri taldeak. Aterriko Gabriel Agirregomezkortak eta Alfonso Guillók 1969ko urriaren 18an jo zuten estreinakoz jendaurrean, Expresión Sonora izenarekin, Luis M. Arakistain zenarekin eta Patxi Garziarekin batera, C.D. Elgoibarrek antolatu zuen berbena batean. Hainbat aldiz jo zuten futbol taldeak antolatutako berbenetan. Hori dela eta, C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira antolatutako kontzertua eskaintzeko aukera "ohore bat" izango dela azaldu dute.



Imanol Alvarezek bigarren egin du Urretxu Sarian



Ciclos Iturriaga taldeko Imanol Alvarez txirrindulari elgoibartarra garaipenetik gertu izan da, beste behin ere. Bigarren postuan sailkatu zen maiatzaren 14an jokatu zen junior mailako Urretxu Sarian. Irteera hartu zuten 78 txirrindulariek 105,5 kilometroko ibilbidea osatu zuten, eta Limousin Kartoia Oroiako taldeko Unai Iribar txirrindularia izan zen azkarrena. Ibarako txirrindularia ihes eginda ailegatu zen Urretxuko helmugara. 54 segundora heldu zen bost lagunek osatutako taldea, eta Imanol Alvarez izan zen taldetxoko bizkorrena esprintean.

Emaitzak

FUTBOLA

Mutriku 2 – Haundi 2 (Oho. erreg.)
 Elgoibar 0 – Bergara 5 (1. erreg.)
 Elgoibar 3 – Aretxabaleta 1 (Oho. jub.)
 Elgoibar 3 – Aretxabaleta 4 (Jub. 1. maila)
 Elgoibar 3 – Beasain 2 (Oho. kad.)
 Zarautz A 3 – Elgoibar 3 (Inf. 1. maila)
 Tolosa 3 – Elgoibar 0 (Infantil Txiki)
 Elgoibar 3 – Amaikak Bat 3 (Aleb.)

SASKIBALOIA

Viento Sur Elg. 58 – Take Coach 44

ESKUBALOIA

Usurbil 24 – Alcorta F.G. 27 (Senior giz.)
 Tecnifuelle 35 – Consulting Alaves 16 (Ju. nek.)
 Beristain 21 – Zarautz ZKE 30 (Jub. mut.)
 Pulpo Brakys 30 – Astigarraga 47 (Kad. nesk.)
 Usurbil 24 – Urkunde Elg. 19 (Kad. mut.)
 Cometel-Dario Bus 20 – Ereintza 14 (Kad. nsk.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 13
 10:30 Elgoibar – Ordizia (Inf. Txiki)
 12:30 Elgoibar – Vasconia A (Inf. 1. maila)
 16:30 Haundi – Zarautz (Oho. erreg.)
 18:30 Elgoibar – Usurbil (1. erreg.)

ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Barixakua, 12
 20:00 Lauko Elg. – Egia (Sen. emak.)
 Zapatua, 13 (Olaizaga Kiroldegian)
 12:30 Astigarraga – Bera Bera (kad.nesk.)
 18:30 Beristain – Arrano Bergara (Jub. mt.)
 Domeka, 14
 13:00 Alcorta F.G. – Tolosa (Semn. giz.)

Beste lau ikastaro eskainiko ditu Udal Kirol Patronatuak udan

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak haur, gazte eta helduei zuzendutako lau ikastaro berri antolatuko ditu uda sasoirako. Alde batetik, Aerobik txiki, Zumba gazteak eta Spinning gazteak ikastaroak ekainaren 26tik uztailaren 21era izango dira; eta, bestetik, igeriketako ikastaroak uztailaren 3tik 20ra. Lau ikastaro hauetan parte hartzeko interesa dutenek Olaizaga Kiroldegian edo Mintxetan eman dezakete izena, ekainaren 16ra arte.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest. Interna, orduka eta baita asteburuetan ere.
☎ 632 953 013

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Interna zein orduka.
☎ 666 197 835 (Rosa Alvarez)

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 717 557

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 436 462

Nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut.
☎ 612 266 877

Nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko prest nago. Orduka. Esperientzia. ☎ 602 490 595

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia eta titulazioa ditut. Garbiketarako egin edo umeak zaintzeko ere prest nago.
☎ 654 304 337

Haurrak edo adinekoak zaintzen nahiz garbiketarako lanak egiten egingo nuke lan
☎ 664 357 381

Arratsaldean lan egiteko prest nago, 16:00etatik 18:00etara. Edozein lan egingo nuke. ☎ 633 946 701

Neska arduratsua eta esperientziaduna adinekoak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. ☎ 631 343 232

38 urteko emakumea naiz, eta edozein lan egiteko prest nago: adinekoak edo umeak zaindu, garbiketarako...
☎ 649 442 014

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak dauzkat. Gidabaimena eta autoa ere bai.
☎ 662 430 854

Haurrak edo adinekoak zaintzen nahiz garbiketarako lanak egiten egingo nuke lan.
☎ 631 185 896

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, interna edo asteburuetan.
☎ 697 754 174

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, interna edo asteburuetan.
☎ 645 891 307

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka.
☎ 633 401 678

Garbiketarako lanak egin eta nagusiak zainduko nituzke.
☎ 631 305 697

Adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 605 196 917

Neska gaztea etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia.
☎ 688 712 075

Neska euskalduna portalak eta elkarrekin garbitzeko prest.
☎ 617 571 210

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gavez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ 632 733 573

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Formakuntza eta esperientzia ditut.
☎ 602 180 306

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan. ☎ 602 193 095

Eskaintzak

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

Esperientziadun sukaldaria behar dugu.
☎ 943 199 061 (Itziaroko hostala)

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 602 490 595

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 667 397 100

Etxe berria alokatzen dut Altzolan.
☎ 626 282 268

3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren.
☎ 688 802 329

Elgoibarren lan egiten dugun bi euskaldun arduratsu alokairuan bizitzeko pisu bila gabiltza. ☎ 618 395 232

LOKALAK.....
50 metro koadroko lokala salgai edo alokairuan, Basarten.
☎ 669 245 520

KINTOAK.....
1949koen bazkaria, ekainaren 3an. Argazkia 12:30ean parrokian. Luntxa Ibai-Ondon, bazkaria Sigman 14:30ean. 50€ sartu, maiatzaren 31rako: ES0421004168 7821 0032 4544 (Caixa Bank).

1947koen bazkaria ekainaren 17an. Argazkia 13:30ean Bolatokian. Luntxa Ibai-Ondon, bazkaria Sigman 14:45ean. 60€ sartu, maiatzaren 31rako: 3035 0007 24 0071063126 (Laboral Kutxa).
☎ 647 647 270 (Camilo)
☎ 616 048 946 (Pedro)

1962koen bazkaria maiatzaren 27an. 12:30 Kalegoen plazan; 13:00 luntxa Tantikan, 14:30ean bazkaria Sigman. 45€ maiatzaren 20rako: ES09 0138 0020 1100 1061 1458 (Bankoa)

BESTELAKOAK.....
Zubi-Ondo elkarteko bazkide kuota salgai. Merke. ☎ 628 253 046

Txakurkumea aurkitu dut Karakate inguruan. ☎ 699 477 611



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Elkartea Administratzaileen Berdunakaren Kontseioa

ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean bada bizilagun bat batzarreko akta guztiak ohiko posta zerbitzuz jaso arren, ez duena ordainketarik egiten, aurrez ordainagiririk jaso ez badu. Egoera honek hainbat arazo sortu dizkigu, diru kopuru handia delako ordaindu gabe daukana. Duela urtebete ingurutik posta elektronikoz jarri da beti presidenteari harremanetan, komunitateari dagokion dokumentazio guztia jasotzeko, baina orain, zera eskatu du: dokumentazio guzti hori ohiko posta zerbitzuz bidaltzea berriz. ¿Presidenteak uko egin diezaiokie eskaera horri eta informazioa orain arte bezala posta elektronikoz bidaltzen jarraitu?

Ezberdindu behar dugu komunitateari dagozkion jakinarazpenak edo zitzazioak bidaltzea eta komunitateko ordainketen inguruko ordainagiriak bidaltzea. Nire iritziz, bizilagun horrek exijitu dezake zitzazioak eta bestelako jakinarazpenak ohiko posta zerbitzuz bidali diezaioten, legez araututa dagoelako jakiekideen batzarreko deialdiak-eta nola egin, eta araudi hori beteteko dagoelako.


Beste kontu bat da komunitateko kuoten ordainketena eta ordainagiriarena, komunitate ez dagoelako behartuta bizilagun horri ordainagiria bidaltzea, ez aurretik eta ez gero.

AHOLKUA: Zitzazioak eta jakinarazpenak pertsonalak izan behar dira eta bizilagunak hala eskatutako helbidera bidali behar ditu presidenteari, eta ezer adierazi ez badu, bere jabetzan daukan etxera. Badaude, komunikaziorako beste bitarteko batzuk, bai, posta elektronikoa adibidez, baina jakin behar dugu legez ez daudela balioetsita.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Sabin**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxeko eta bereziki, Teoren partez.



Zorionak, **Leire**, igandean 10 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez, muxu handi bat.



Gure **Eneko** 3 urte handi! Zorionak, potolito! Patxo handi bat etxeko eta bereziki, Laiaren partez.



Zorionak, **Ane**, atzo 8 urte bete zenituelako. Patxo bat etxeko eta bereziki.



Zorionak, **bikote!** Asteburuan 37 eta 5 urte betetzen dituzue. Ondo-ondo ospatu familian! Patxo handi bat etxeko eta bereziki, Oinatzen partez.



Bazen ordua, **bikote!** Zorionak kua-drillako guztien partez.



Zorionak, **Elaia!** Ondo pasatu gaur zure urtebetetze eguna.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62


MEKANOSA
Errosario, 27
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

LAN DEIALDIA

■ Itziarren kokatutako makina-erremintako enpresa batek SAT zerbitzurako teknikaria behar du. Artezte-makinak instalatu, martxan jarri eta sor daitezkeen arazoak konpontzea izango da haren egitekoa, eta nazio mailan zein atzerrian lan egingo du.

■ Mekatronika, Mekanizatua (CNC) edo Ekipamendu Industrialen Mantenimendurako ikasketak eginak dituen teknikaria behar da, bidaiatzeko eragozpenik ez duena eta hizkuntzen ezaguera duena (ingelesa edota frantsesa).

■ Baloratuko da makina-erreminta sektorean esperientzia izatea.

Interesatuak bidali CV ondorengo posta elektronikora:
sat@germh.com

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK



Ez da soinu kalitatea bakarrik; bizi-kalitatea ere bada

19 BARIXAKUA

18:00 C.D. Elgoibarko futbol eskolako umeen partidak. Kalegoen plazan, Lekuederren eta Aita Agirre plazan.

19:30 Aterri musika taldearen emanaldia, Kalegoen plazan. C.D. Elgoibarrek antolatuta.

19:30 C.D. Elgoibarrri harrera, udaletxean. Pleno aretoan.

20 ZAPATUA

11:00 Ingeniaritza dualeko eta Heziketa Zikloetako informazio saioa. IMHn.

21 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *Un domingo de mayo* (E. Moreno)
2. *La venta de los gatos* (J. Serrano)
3. *Perez Prado* (P. Prado-Gazany)
4. *Hymn of the highlands* (P. Saprke)
5. *Islas Canarias* (J. M. Tarridas)

19:00 Amoranteren kontzertua Mendaroko San Agustin kulturgunean.

22 ASTELEHENA

18:30 'Osasuna eta emakumea: genero ikuspegitik ulertu osasuna'. Hausnarketarako taldea. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Sarrera doan.

23 MARTITZENA

19:30 Osasuna eta kirola hitzaldi zikloaren barruan, *Guraso eta entrenatzaileen ardua kirol heziketa osuntsuaren bila* hitzaldia eskainiko dute Unai Arrietak eta Angel Mari Lopezek. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

24 EGUAZTENA

17:30 Bertsogintza egitasmoaren kurtso amaierako jaialdia. Herri Eskolako 4. mailako eta Ikastolako 6. mailako ikasleak. Herriko Antzokian.

19:00 Bertsogintza egitasmoaren kurtso amaierako jaialdia. Herri Eskolako eta Ikastolako 5. mailako ikasleak. Herriko Antzokian.

26 BARIXAKUA

18:00 Gaztelekuko pintxo lehiaketak. Gaztelekuan.

18:30 Pilota partidak. Kalegoen plazan, 'Salatzen dut' asteburuaren barruan.

19:00 Elgoibarko Sagardo Eguna. Atabal elkarteak antolatuta, Maalako parkean.

27 ZAPATUA

18:30 'Salatzen dut' ekitaldiko aurkezpena.

Jarraian, kontzertuak: Alfon eta Gabi eta Itziarren semeak taldeekin.

Ondoren, Karrika antzerki taldearen ikuskizuna Maalako parkean.

LUDOTEKAKO ASTE NAGUSIA

19 BARIXAKUA

Txupinazo Eguna

17:00 Txupinazoa: pregoia irakurriko dute. Segidan, buruhandiak eta dragoizkiletak.

17:30 Aste Nagusiko kartel lehiaketaren sari bana-keta.

18:30 Dantza lehiaketa eta talde jolasak. Maalako parkean, herritar guztientzat irekia.

22 ASTELEHENA

Ludo Eguna

17:00 Wii jokoen maratonia. Ludotekan.

23 MARTITZENA

Txiki Eguna

17:30 Jon Olivares ipuin kontalaria. Ludotekan. HH4-LH2 ume guztientzat irekia.

Ondoren, jolasak eta txokolate jana.

24 EGUAZTENA

Kuadrillen Eguna

17:00 Olinpiada zoroak. Ludotekan.

18:00 Rock kontzertua: Musika Eskolako rock taldea. Ludotekan. HH5-LH6ko ume guztientzat irekia.

Ondoren, buruhandiak eta dragoizkiletak.

25 EGUNA

Sukaldari Eguna

17:00 Top Txef sukaldaritza berezia: Pintxoak prestatuko dituzte, gero gurasoekin jateko. Izenematea maiatzaren 24ra arte.

26 BARIXAKUA

Kirolari Eguna

16:30 Giza futbolin erraldoia. Ludotekako patioan.

18:00 Futbolin txapelketa, haur eta gurasoek osatutako bikoteentzat. Izenematea egunean bertan.

27 ZAPATUA

Familia Eguna, Idoroben. Kiribilduz egitasmoarekin elkarlanean. Mokadutxoak, jolasak. Bazkalostean Niala magoa eta Trikimailu taldearekin erromeria. Eguraldi txarra egingo balu, Maalako parkean. Izenematea maiatzaren 8tik 23ra. Doan.



III. URTEURRENA

Lolita Mondragon Sanchez

2014ko maiatzaren 17an hil zen.

Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 20, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Zinea (Herriko Antzokian)

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

'La excepción a la regla'

19 Barixakua, 21:30
 20 Zapatua, 19:00/22:15
 (VOS)
 21 Domeka, 19:00
 22 Astelehena, 21:30

G
U
A
R
D
I
A
K

09:00 - 22:00

19 Barixakua ORUESAGASTI
 20 Zapatua BARRENETXEA
 21 Domeka BARRENETXEA
 22 Astelehena IBAÑEZ*
 23 Martitzena GARITAONANDIA
 24 Eguaztena ETXEBERRIA
 25 Eguena FERNANDEZ*
 26 Barixakua YUDEGO

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez:

Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)
 Tel.: 943 756 142

* Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 384

**Imanol Gastesi Goenaga**

2017ko maiatzaren 15ean hil zen, 76 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Imanol Gastesi Goenaga**

2017ko maiatzaren 15ean hil zen, 76 urte zituela.

**Eskerrik asko
 emandako babesarengatik, Imanol.**

Kimetz Elkarte



I. URTEURRENA

Antonio Arrillaga Arakistain

2016ko maiatzaren 19an hil zen, 84 urte zituela.
 Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
 maiatzak 21, 12:00etan, Mendaroko Azpilgoetako elizan.
 Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Ez agurrik, ez adiorik
 gero arte baizik.
 Gure bihotzetan betiko,
 maite zaitugu.**





Manu Sanchez

Unai Villena



Ustez lagunak ginen arren, mundu-ikuskerak hain ezberdinak geneuzkan, hain urrunak ziren gure hautu filosofiko, etiko, politiko zein estetikoak, ezen bost axola baitzitzaidan zer pentsatzen zenuen, eta are gutxiago esaten zenuena. Hala ere, auskalo zergatik, muturreko etsipen une hartan zuregana jo nuen, neukan arazo larria azalduz, iritzi eske. Eta, aurreikustekoa zen bezala, gauza bakarrerako balio izan zidan zure iritziak: haren inguruko neurea berresteko.

Gertatuko zait gauza bera hamaika aldiz, eta gertatu aurretik izango dut beti zalantza bera gogoan ate-joka: iixita daudela dakigun jendearenganako zenbait ate, zabaltzen saiatu ala bere horretan uztea hobea?

“Auskalo zergatik, muturreko etsipen une hartan zuregana jo nuen, neukan arazo larria azalduz, iritzi eske”



Miguel Arriola Irizar

2017ko maiatzaren 17an hil zen, 74 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Ibilaldia 2017

MUNGIAN

MAIATZAK 28, IGANDEA

Autobusa antolatu dugu Bizkaiko ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko

Irteera: 10:00 (Sigmako autobus-geltokia)

Itzulera: 20:00

Prezioa: 10 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 9 euro)

Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da

Azken eguna: MAIATZAK 25 (gutxieneko kopurua 30 pertsona)

Antolatzailea



Babeslea



Ludoteka eta Gaztelekua logotipo lehiaketa

Ludoteka eta Gaztelekua zerbitzuen 10. urteurrena ospatzen dugu aurten eta logoak berri nahi ditugu.

▶ **PARTE HARTZAILEAK:** Lehiaketa honetan nahi duten elgoibartar guztiak parte har dezakete.

▶ **GAIA:** Ludotekaren logotipoa eta Gaztelekua logotipoa.

▶ **AURKEZTEKO EPEA:** Ekainak 8, osteguna.

▶ **LANAK AURKEZTEKO LEKUA:**

- Udalaren herritarren arretarako bulegoan: Santa Ana kalea, 2. Sarrera Giza Eskubideen parkean.
- arreta@elgoibareus

▶ **ORDUTEGIA:** Asteleheneetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara, eta asteazkenetan, 16:00etatik 19:00etara.

▶ **SARIAK:**

- Bi sari emango dira: bat, Ludotekaren logotipoarentzat, eta bestea, Gaztelekua logotipoarentzat.
- Sariak honakoak izango dira: herriko dendetan erosketak egiteko 500€-ko baleak.

▶ **OINARRIAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:**

- Udalaren Hautu Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailean: www.elgoibareus
- 943 741 050 - gazteria@elgoibareus



IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HHO-1eko matrikulazio aldia zabalik maiatzaren 15etik 26ra

HHO (2017an jaiotakoak) irailan eta urrian hasteko

HH 1 (2016an jaiotakoak) irailan hasteko



elgoibar ikastola



www.elgoibarikastola.eus
943 744441

Ordutegi zabala: 7:30-19:30. Jai-zubietan eta oporretan irekita



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Erparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / Faxa: 943 743 062
iturgintzate.llabide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

ARozTEGIak



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso industrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industrigunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



Albixuri industrigunea, 1-0/1-P
943 740 547



IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

ERREFORMAK



Errosario kalea, 15 behea - Elgoibar

943 744 019
605 713 168

- * Proiektuak
- * Erreformak
- * Gremioen koordinazioa
- * Obren zerbitzu integrala

ELEKTRIZITATEA




Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 358

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697



INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
DOMOTIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

943 741 238
680 756 248

San Frantzisko, 56 - Elgoibar
roteta@rotetaelek.eus

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90